

1.- BALOREZKO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzera dago bideratuta gure zerbitzua?**

BIDEAN-en arazo sozial zehatzari egin nahi diogu aurre, etorkinen inklusioa sustatze bidean gure ekarpena eginez. Nola? 0-6 urteko haurren kalitatezko zaintza inklusiboa eta doakoa eskainiz, beraien zaintzaz arduratzen diren helduak euskara ikasten, helduentzako eskoletan edo lan munduratzeko ikastaroetan dauden denbora horretan zehar.

Hizkuntza, kultura, gizarte-maila eta jatorria zeintzu diren alde batera utzita sozialki eta kulturalki erraztasunak emanez sustatu nahi dugu inklusioa. Guk haurretan jarriko dugu fokoa, hauei kalitatezko zaintza inklusiboa eskainiz, baina haurren ongizatea familiaren ongizatearekin batera doa. Horregatik, helduek tresna sozialak, kulturalak eta laboralak eskuratzea erraztu nahi dugu. Ildo honetan, hizkuntzaren ikasketa inklusiorako ezinbestekoa dela pentsatzen dugu eta emakume etorkinen egoera ahulagoa ere oso kontutan hartu dugu. Guzti honengatik gure zerbitzua udaletxe, aldundi zein jaurlearitzako harrera planetan barneratu eta lagungarria izango dela pentsatzen dugu.

- **Zer eskaintzen dugu?**

- **Doako zerbitzua:**

Euskara ikasteko edo lan munduratzeko bidean egiten den ahaleginak doakoa izan behar duela uste dugu. Hala ere, zerbitzua modu egokian erabiltzen dela ziurtatzeko, asistentzia eta ikasprozesuan aurrera egiten dutela bermatzea eskatzen dugu.

- **Ikastatoetara egokitutako ordutegiak:**

Gure ordutegiak ikastaro ezberdinen ordutegien arabera dira eta ez dugu 20:00tatik aurrera zerbitzurik eskaintzen.

- **Kalitatezko harremanak haur eta familiekin:**

Ahalik eta giro familiarrena sortu nahi dugu. Familia eta haur hauek desberdintasun eta babesgarritasun egoera pairatzen dute eta batzuetan errealitate berriaren komunikazio-kodeak eta arauak barneratzeko arazoak izaten dituzte. Horregatik, dituzten premiak antzematen ahaleginduko gara bereziki, inklusiorako bidean ezinbestekoak diren errespetua, empatia eta jarrera positiboetan oinarritutako harremanak sustatuz batera. Segurtasun eta konfiantza harremanak eraikitzea dugu helburu.

Horregatik, hasteko egokitzapen-garaia egiten dugu. Egokitzapenean, besteak beste, familiarekin egon eta gure funtzioa zein den, nola antolatzen garen eta orohar zerbitzuaren nondik norakoak azaltzen dizkiegu. Ahal den neurrian euren egoeraren berri ematea eskatzen diegu ere: etorreraren arrazoiak, etorri aurretiko eta ondorengo egoera laboral eta ekonomikoa,.. e.a. **Pertsonalizazioa** garrantzitsua da hemen. Guztiak etorkinak dira, baina inmigratzeko arrazoiak ezberdinak dira: Gatazka armatuak, pobrezia,... Bestalde, bakoitzaren kultura eta hizkuntza ezberdinak dira baita ere. Azkenik, baina oso garrantzitsua, haurren adina, bizipenak eta bere ezaugarriak daude. Beraz, egoera desberdinak kontuan hartzen ditugu, haurren beharrei hobeto erantzun ahal izateko. Laguntzeko, **taldeak 10-15 hurrek osatuko dituzte gehienez.**

Haur eta familia askoren jatorrizko hizkuntzak ezagutzen ez ditugunez eta hori hasiera baten traba izan daitekeela badakigunez, jatorrizko hizkuntzak ezagutzen dituzten elkarte ezberdinetako pertsona bolondresen laguntza dugu.

Eskuragarritasuna eta laguntza kalitatezko harremanen barne kokatzen ditugu. Zerbitzua erabiltzen duten denboran zehar haurrekin zerikusia duen aholkularitza eta laguntza eskaintzen dugu.

- Kalitatezko zaintza:

Erritmoak errespetatzen dituen eta haur bakoitzaren beharretara egokitzen den zaintza eskaintzen dugu, haurrarekiko errespetuan eta begirunean oinarritzen dena. Erreferentzia afektibo argiak eskaintzen ditugu, atxikimendu segurua bermatzeko. Hau da, erreferentziazko zaintzaileak eskaintzen dizkio zaintzak haurrari, betez ere 0-3 urte tartean. Emmi Pikler-en ekarpenak jarraitzen ditugu batez ere.

- Euskaraz hazi eta hezteko espazioa:

Euskara etxean erabiltzen ez duten haurren Euskararen erabilera sustatzen dugu. Haurrek euskara beste ingurune batzuetan praktikatzeko eta euskal ohituretara hurbiltzeko aukera ematen diegu.

- Barne- espazio egoki eta segurua:

Oso kontutan hartzen dugu espazioaren antolaketa eta diseinua, faktore garrantzitsua baita haurraren prozesuan lagundu edo hau oztopatzeko. Haurren premiak errespetatu eta asetzen dituen espazioak eskaintzen ditugu, umearen garapenean, autonomian eta heziketa prozesuan lagunduko dutenak.

Behar hauek asetuko ditu gure espazioak: Oinarrizko beharrak (elikadura, atsedenaldea eta higienarekin loturikoak), behar afektiboak (hauek garrantzia berezia dute), mugitzeko beharra, jolasteko beharra, esploratzeko beharra, sortzeko beharra, autonomo izateko beharra, sozializatzeko beharra, eta adierazteko beharra. Eta espazio horiek haurren premien arabera aldatu edo moldatuko ditugu; ez dira behin betikoak izango.

Barne espazio hauek 0-2 urte tarterako pentsatu ditugu batez ere, inklusioa sustatzeko, kanpo espazioa izango baitugu nagusi.

Osasuna eta segurtasuna bermatzen ditugu, baita erosotasuna ere. Gaur egun, covidari aurre egiteko protokoloak zorrotz betetzen ditugu. Bestalde, altzari eta ekipamendua beraz ergonomikoki egokiak izango dira adibidez.

- Herriarekin harreman estua:

Kanpo espazioa beti garrantzitsua da haur baten garapenean eta gure kasuan, are garrantzitsuagoa. Inklusioa lortu nahi badugu, herriko, auzoko, tokiko beste haurrekin harremantzea garrantzitsua da. Garrantzitsua da inklusio soziala lortzea eta horretarako beharrezkoa da haurrek bere berdinekin egotea. Gainera, horrek hizkuntza gaitasuna bereganatzen laguntzen die. Herriarekin harreman naturalik ez badugu sustatzen, gure zerbitzuak ez du inklusioa sustatuko. Hau da gure haurren inklusiorako oinarri garrantzitsua.

Ez ditugu bertakoak eta etorkinak elkartzeko topaguneak sortu nahi, gure ustez ingurune artifizialak sortzea baita. Aldiz, esan bezala, gizartean jada dauden guneetan sustatuko dugu inklusioa. Ikusgarri egongo gara. Elkarrizketa eta komunikazioa sortu nahi ditugu bai barne espazioan, esperientziak partekatzeko, eta bai kanpo espazioan, harreman berriak egin eta aniztasunaren aberastasuna azaleratzeko.

Azkenik, 15ean behin, **familiekin** eta haurrekin ateratzeko aukera eskainiko dugu. modu honetan familia osotasunean jarriko da harremanetan herriarekin, gure babesa eta laguntza izanik. Bestalde mintza praktika egiteko aukera ezinhobea eskaintzen dugu.

- Naturarekin harremana:

Oso garrantzitsua den naturarekin harreman zuzena izateko aukera ematen diegu haurrei.

- Langile kualifikatuak.

Pertsona talde kualifikatua gara, koordinatuta eta irizpide pedagogiko berdina jarraituz lan egiten duena.

